

Inguruaren ezaguera
Lehen Hezkuntzako 6. maila:
BIDAIARIAK TRENERA!

2. ariketa

1. Zer arrazoiengatik joango zinateke beste leku batera bizitzera?

Historian zehar, arrazoi ugari behartu dituzte pertsonak jaioterria uztera: ingurumenari loturikoak (uholdeak, lurrikarak, istripu nuklearrak, etab.); gizarte gatazkak (gerrak, jazarpen politikoa, erlijio sinesmenak, arrazoi etnikoak, etab.); ekonomikoak (enplegurik eza, bizimodu hobea bilatu nahia, etab.).

2. Zer aldatzen da beste leku batera bizitzera zoazenean?

Hizkuntza, hitz egiteko modua, azentua, elikadura, janzteko modua, klima, paisaia, ohiturak, ordutegiak, festak, musika, jokoak, pertsonekin erlazionatzeko modua.

3. Zer ikas dezakegu beste leku batzuetatik datozen pertsonengandik?

Beste herrialde batzuetatik datozen pertsonak beren hizkuntza erakuts diezagukete, edo zer hitz desberdin erabiltzen dituzten. Halaber, jaki berriak prestatzen erakuts diezagukete, haien herrialdeetako paisaien argazkiak, musikak eta janzkiak, jolas eta ipuinak...